

MAILOPE TXIKI: Katutxoa **LUZE:** Leire Aranburu **KUXKUXEAN:** Ilbeltzeko Zorion Agurak
ERREPORTAJETXOA: Mediku euskalduna nahi dut **ELKARRIZKETATXOA:** Ane Barberia

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Eta zu, zer moduz portatu zara?


Ainhoa Iriarte (Arribe)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak




Urtero bezala Olentzero aurreratu egin zen eta Ibarberri eta Araxes ikastetxeetan izan zen ikasleen eskaerak eta eskutitzak jasotzen. Ausartenek Olentzerori muxu eta guzti eman zioten.

Eskulana: Katutxoa


Oraingo honetan paper joko batekin gatoz. Ondoko lauki hau moztu eta hurrengo pauso hauek jarraituz katutxo bat egin eta margo-tu beharko duzue. Ea asmatzen duzuen! Zuen katutxoaren argazkia mailope@labrit.net helbidera bidaltzen duzuen artean 19. KORRIKAKo buf bat zozketatuko dugu.



1



2



4



3



5



Eguberriak iritsi baino lehen Olentzeroren irudi bat margotzeko proposamena egin genizuen. Begira Egoitz Orejak, Irati Bildarrazek, Naia Agirrek eta Lekunberriko Ixonek zein Olentzero politikak bidali dizkiguten. Oraingoan 3 urteko Ixonek jasoko du liburu bat opari.



04> Iritzia

08> Luze: Leire Aranburu

09> Zabal: Oskar Estanga



10 > 30 etxe ingurutako balkoiak erortzen ari dira

Promozio bereko Lekunberriko 30 etxeetako balkoiak erortzen ari dira. Kaltetutakoek dagoeneko erreklamazioa egin diote Aseguru-etxeari. Julio Calonge kaltetuetako bat da eta berarekin izan gara.

13> Laburua: Interneteko euskarazko baliabideak

14> Kuxkuxean: ilbeltzeko zorion agurrak

15> Erreportajetxoak: mediku eta pediatria euskaldunak



16 > Gorputz Adierazpen ikastaroa

Miren Tirapu lekunberriarrak gorputz adierazpenari buruzko ikastaroa eskainiko du Astizko Aterpean. Otsailaren 13, 14 eta 15ean izanen da ikastaroa eta dagoeneko izen emateko epea zabalik dago.

19> Kultura: Olentzero



22 > Marrazki Lehiaketa

Ibarberri Ikastetxeko ikasleek V. Marrazki Lehiaketan parte hartu dute. Aurten forma geometrikoak gaitzat hartuta euren marrazkiak aurkeztu dituzte ikasleek.

24> Elkarrizketatxoak: Ane Barberia

26> Kirola

28> 20 urte bidean: Goikozuloa

29> Haizeak eramana: Lucia Ayestaran

30> Ekinaren ekinez: Mikeletxenea

Mailope doan banatzen da honako herrietan: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarteak.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ainhoa Iriarte, Lucia Ayestaran, Juanito Perkaz, Julio Calonge, Nerea Urbizu, Miren Tirapu, Euskara Zerbitzua, Ibarberri ikastetxea, Plazaola, Ane Barberia, J.M. Zabaleta, F. Bernabeu eta Igor Mitxaus.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103
mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

TIRADA: 1.600 ale.



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Etxarriko etxe hutsak

Sei bat urterekin joanarazi ninduten lehendabiziko aldiz Etxarriko eskolara, Behiko Bordatik; garai hartan halakoak ziren gauzak eta hura normala zen. Hala eta guztiz ere, bitxikeria bat kontatuko dizuet, alegia, eskolara joan orduko banekien irakurtzen, baina ez ni talentu apartekoa nintzelako, ez, baizik eta arreba Arrosak etxean irakatsi zidalako. Handik hilabete gutxira, lehen jaunartzea egin genuen; bi lagunek urte hartan. Lehendabiziko urtean Zaragozako maistra bat izan genuen, Maria Luisa Artigas izeneko. Hurrengo hiru urteetan, ordea, Errazkingo Mari Jose Oreja, maistra gazte eta euskalduna. Harekin ikasi nuen nik lehenengo abestia euskaraz, Aldapeko sagarraren izeneko, oso oker ez bano, behintzat. Denbora hartan, orain dela 50 urte, gogoratzen dut Etxarriko eskola praktikoki, beteta zegoela. Kalkulatzen dut 25 bat lagun gutxienez izanen ginela gela hartan, neska-mutilak, eta adin guztietakoak. Horretaz gain, oroitzen naiz helduxeagoentzat ere bazirela eskola partikularrak edo antzeko zerbait. Gaur egun, eskola itxita dago aspalditik –jaietan erabiltzen da bakarrik-, eta Etxarritik Lekunberriko eskolara, segur aski, bost haur baino gutxiago joanen dira; nola aldatu diren kopuruak, e?

Era berean, gogoratzen dut, Etxarriko herri gunean, garai hartan soil-soilik Otaorrea eta Dendaenea zeudela jenderik gabe; gainerako etxe guzti-guztietan jendea bizi zen, alajaina! Baserri eta bordei dagokienez, aldiz, ordurako, Apezzeneko borda, Matxeneko borda, Oxeneko borda, Etxeberriko borda, Juansantzeneko borda eta Auseneko bordak hutsik zeuden, jenderik gabe, alegia.

Orain, 50 urte igaro ondoren, nire ustez, aldetarik handiena eta latzena herri gunean berean gertatu da; bordetan ez hainbeste. Ikus dezagun ba, zer panorama daukagun gaur egun Etxarri herrian. Herri gunean: Ostatua, Matxenea, Matxentxiki (Bazter etxea), Martenea, Argiñenea (Eskoletxea), Lopetxenea (Lopitxenea), Eskola, Dendaenea, Otaorrea eta Izoa Maria, daude zeharo hutsik une honetan (10 eraikin inor gabe).

Arutz-enea, Azpikoetxea (landetxea), Maitzenea, Zapatenea, Gortzenea, Sagastia, Ausenea, Arantxa Olaskoagarena, Errementeneko semeena eta Eliza, uste dut esan daitekeela, jendea bizi dela, bai, baina ez egunero, baizik eta bolada batzuetan, asteburuetan, jaiegun batzuetan, oporretan eta abar (10 eraikin; jendea bai, baina ez beti).

Olaskoagaenea (Ongi Etorri), Zurgiñenea, Azpikoetxe txikia, Etxatze (Apezenea), Apezenea, Errementenea, Etxeberria, Txalbeña, Oxenea (Orixenea), Juansantzenea, Gure Ametsa eta Apezetxea (12 eraikin jendeduna).

Eta orain, herri gunetik kanpokoak aztertuta, honako emaitza

hauxe ateratzen zaigu, alegia, jenderik gabe: Apezzeneko borda (Biskarret, Jainkoa), Zapateneko borda (erorita dago), Oxeneko bordak (Eleorgain ingurukoa, Muskillara ingurukoa eta Illarrungo ardi borda aspalditik dago lurrean erorita), Etxeberriko borda, Auseneko bordak (momentuz, behintzat) eta Juansantzeneko borda (9 eraikin inor gabe).

Boladaka jendea bizi direnak, berriz: Unoaberi (alde bat), Etxetxiki (ez dakit seguru), Matxeneko borda, Etxezabal eta Hiru-Ena lantegia (5 eraikin; jendea bai, baina ez beti).

Jendea egunero dutenak: Behiko Borda (bi etxebizitza), Hur, Unoaberi (alde bat), Gaineko Borda, Bordatxuri (bi etxebizitza), Marea (Maria) eta Arbe (7 eraikin jendeduna).

Bestalde, pentsatzen dut interesgarria izan litekeela gogoraztea beste xehetasun txiki batzuk, konparaziora, Eskale etxea (Eskaletxea) gaur egun desagertua dago, Ferratokia (Perratokia) eta Garbitokia erabilerarik gabe, eta, Santa Kruz basiliza ez dakit urtean behin ere erabiliko ote den, irailaren 14an. Zorionez, uste dut nabarmentzekoak direla halaber, azken hamarkada hauetan, herritik kanpo egin diren azienda etxalde berriak (bost gutxienez), eta, baita etxebizitza berriak ere (egin edo egokitu eta neronek ikusiak), herri gunean eta kanpoan, esate baterako: Zurgiñenea, Etxatze, Arbe, Etxezabal, Hur, Gaineko borda, Unoaberi, Izoa Maria, Gure Ametsa, Alikenea, Hiru-Ena, Etxetxiki...

Ikus dezagun ba, gaur egun, zenbaki hotzetan, zer-nolako laburpen edota balantzea ematen digun Etxarrik. Egunero jendea bizi den etxe kopurua: 19. Boladaka jendea dutenak: 15. Jenderik gabe daudenak: 19. Hortaz, 34 etxetan jendea bizi da, beti edo batzuetan, eta, 19 hutsik daude.

Deus baino lehen, akatsen bat egin baldin badut, nire barkamena eskatzen dut alde aurretik, eta adierazi nahi dut ez dela izan asmo txarrez, baizik eta ez jakiteagatik.

Bukatzeko, azaldu nahi nuke artikulua txiki hau ez dudala egin inor epaitzeko, kritikatzeko edota lotsa gorritzeko, ez, baizik eta gaur egun dauden datu gordin eta errealki ezagutu, jakin eta konstatatzeko. Hortik aurrera, espero dut datu horiek baliagarriak izateko, denok pentsatu, hausnartu eta gogoeta sakonak egin ahal izateko.

Honatz ba, Etxarriko historia txiki bat, tristea alde batetik, baina alai eta pozgarria beste alde batetik, herria oraindik bizirik dagoelako. Bere biztanleak borrokan ari dira bizirauteko, eta hori betiere, itxaropentsua da. Gora ba, Etxarri bizirik!!!

Xanti Begiristain Madotz, Auritz



Larraungo Udalak onartutako mozioak:

- Nafarroan ETB ikustearen aldeko mozia

1. Erakunde honek LTD bidez ETB Nafarroa guztian ikusteko bide berriak lantzea eskatu dio Nafarroako Gobernuari.
2. ETB Nafarroan lehenbailehen ikusteko behin-behineko formulak onartzeko eskatu dio erakunde honek Nafarroako Gobernuari. Esaterako, egungo ETBren sare analogikoa digitalizatuz edo bestelako neurriekin.

- Adierazpen Instituzionala: Emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako Nazioarteko Eguna

Larraungo Udalak, honako konpromisoa hartzen du:

Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta humanoak indartuz.

Udalerrian gerta litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketa-rako eragile aktibo izan.

Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.

Emakumeen boteretzea bultzatzen duten gune komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderekin eta sare lana sustatuz, boteretze eskolak edo emakumeen etxeen modukoak.

Ahulena diren guneetan biolentzia matxista gerta ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazari guneak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.

Azkenik, dei egiten dugu egun honi begira mugimendu feministak antolatu dituen ekimenekin bat egin eta bertan parte hartzera.

GARAIZ Zure behar eta ordubegira moldatuko gara

ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZMI!

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika ^{inglesa}
lengua ^{kimika}
euskera ^{marraketa teknikoak}
historia ^{unibertsitate mailako ikasgaiak}

948 504 450
648253521

ALBI Taberna-kafetegia
Eguneko menua, jai egunetako menua,
bokatak eta pintxoak
Herriko plaza, 948 604 554,
Lekunberri

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Ainhoa Iriarte (Arribe)



*Datorrena berriro
Korrika urtea
uztartuz berriz ere
kirola ta artea
berdin dugu agure
haur edo gaztea
goazen horretarako
prestatzen hastea*

*Nafar gobernuak du
jarrera zorrotza
euskararen aldeko
jokabide hotza
sumatzen da halare
herritarren poza
euskaraz euskaratik
dezakegu goza*

Juan Kruz Martirenaren-
tzat puntua eta lau oinak:

Puntua: _____
Mozorrotzen al zara
inauterietan

Oinak: _____
algara
plazara
dantzara
zirrara

Doinua: Orioko balearena.

- 6 -



EGIN OPARI EUSKARA!

Iruñeko Campion euskaltegiak Eguberri hauetarako opari berezia prestatu du. Inguruan euskara ikasten hastekotan dabilen inor baduzu, oparitu hurbiltze ikastaroa egiteko bonoa 30 euroren truke. Otsailaren 2tik 19ra izanen da ikastaroa, astean bitan bi orduz, guztira 12 orduko ikastaroa. 948 22 22 46 edo campion.ikaeuskaltegiak.eus



HASI DA 2015EKO NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Joan den abenduaren 12an eman zitoten hasiera aurtengo txapelketari Iruñean jokatu zen kanporaketarekin. Sei bertsolari aritu ziren bertsotan: Sahats Aleman, Mikel Juaniz, Mintxo Astiz, Kotte Plaza, Sarai Robles eta Mikel Lasarte. Otsailaren 7an hasiko dira final-laurdenak, bertan 30 bertsolari parte hartuko dute.



MAILOPEREN ALDEKO BOLETOAK

Eguberrietako loteriarekin batera boletoak jarri ditugu salgai 3 eurotan. Dagoeneko salgai daude Mitxausean, Lekunberriko Laboral Kutxan, Aliproxen, Kantinan, Satorzulon, Beteluko Rosarenean eta Arribeko Maitereanean. Eskualdeko produktuekin osatutako saski eder bat eta bidai bat zozketatuko dira. Animatu eta zorte on!

Konponketarako bidean...



Aitor Irastortza

Urte berri on eta zorionsua Mikel! Ze martxa? Familiarekin eta turroiez gozaturiko une hauetan, urte zaharrea pasatakoa gogoratu eta urte berria ditugun itxaropenei jarri ohi zaie begia. Horrelako zerbait egin nahi nuke nik ere, Euskal Herriko egoera politikoan zentratuz. ETak bere borroka armatuari bukaera jarri zionetik, ilusioz beteriko garaiak bizi ditugu, baina egia esan ez dira nik espero nuen azkartasunez garatzen ari. Mendeku gosezko

“Euskaldunok errespetatuak izan gabe segitzen dugu”

jarrerekin, euskal preso eta iheslarien gaian ez da aurre-
rapausorik ematen, zentzugabeko epaiketa eta atxilo-
tekin jarraituz gainera. Euskal herritarroi ez digute gure
etorkizuna nazio gisa eraba-
kitzeko eskubiderik ematen
eta euskaldunok errespet-
atuak izan gabe segitzen dugu
leku publiko askotan, gure
hizkuntzarekin komunikatzen
saiatzean. Talde politiko nagusiak bitartean, euren proiektuak
sortu eta hori saldu nahian
dabilta boto eske, herritarrok
zer nahi dugun entzun eta gure
zerbitzura jarri beharrean. Euren
ika-mika luze, aspergarri eta an-
tzueta pasatzen dute denbora,
soluzioak eman ordez. Baina nora
garamatzate horrela Mikel? Zentzu honetan, herritarrok
irakaspen bat ematen gabilta agintariei, Gure Esku Dago,
Sare eta Korrika bezalako herri ekimenen bidez, puntu
komunak aurkitu eta ideologia ezberdinetako pertsonak
elkartuz. Hori da nire ustez jarraitu beharreko bidea, eta
era berean, alor batzuk ezin dira besteak aurrera eraman
gabe uzteko aitzakia izan. Hainbeste samin eragin diguten
gai hauek behingoagatik konpontzeko beharra dago eta
heldu den maiatzean datozen hauteskundeak elkarri gaiz-
ki esaka eta interes alderdikoiei begira hartu ordez, eus-
kaldunon artean gutxienez, gauzak adostu eta gizartearen
nahiak betetzeko probesteko eskatu nahi diet. Eskakizun
hauek gauzatu eta aurrera pausoak ematea da nire aur-
tengo desioa Mikel, erabaki politikoek eragin zuzena bai-
tute gure bizitzan.



Mikel Alvarez

Aupa Aitor! Gabonetako afari, baz-
kari eta bestelakoez gozatzen ari naiz
bai, baina buruaren zati handi bat
orain izango ditudan azterketetan
dut. Badakizu, ikaslearen bizitza
horrelakoa da; hala ere, ezin gara
kexatu, gu baino askoz okerrago
bizi direnak ere badaude eta. Nire
azkeneko urtea da gainera uniber-
tsitatean (momentuz behintzat) eta
horrek gauza asko aldatuko ditu nire
bizitzan; bestalde, zuk esan bezala, euskaldunon bizitza aldatu du-
ten hainbat gertakizun jazo dira azkeneko urte hauetan.
Baina gauza kontraesankorrak ere aurkitu ditzakegu alda-

“Euskaldun guztiok ez ditugu
interes berdinarik”



keta horietan, izan ere, askok es-
perotako eragina ez dute izan: zer
aldatu da Euskal Herrian ETaren su
etenetik? Presoen egoera hobetu
al da? Autodeterminaziorako pau-
soak eman al dira? Aberatsen eta
pobrearen arteko alde murriztu al
da? Galdera hauei guztiei ezezko
batekin erantzun geniezaieke. Az-
ken finean, aurrean daukaguna
gure etsaia da eta ez digu ezta
ogi apurrik emango. Hori oso
presente eduki behar dugu, na-
hiz eta batzuei sarritan ahaztu.

Bestalde, alderdikoikeriak eta ideologiarik gabeko eki-
menak aipatu dituzu. Non dago horien arteko muga? Eki-
men guztiak dira politikoak eta denak dute etsai bat. Hain
zuzen ere politikoa izateko herritarren sektore bat defen-
datu behar dute beste sektore bat kanpoan uzteko. Au-
todeterminaziorako eskubidea eta bestelako aferak poli-
tikoak diren heinean, herritarren sektore batek (nahiz eta
oso-oso txikia izan) gaitzesten ditu. Euskaldunon artean
berdina gertatzen da, hau da, euskaldun guztiok ez ditugu
interes berdinarik; langile xume batek eta Kutxabankeko
lehendakariak interes berdinarik dituzte? Posible al da biak
mugimendu berdinean batzea? Ez al litzateke guztiz “kon-
traturatura” izango? Utzi ditzagun ahalegin eta printzipio
faltsuak eta eraiki dezagun benetako herri boterea, in-
teres eta maila berdinean kokatzen direnen arteko herri-
tarren boterea.



Leire Aranburu

Hamaika kolore

Kaixo irakurleok, sasi idazle berria nauzue.

Urte berriari begira, helburu berriak, ekintza berriak,aldaketa txiki eta handiak eta beste hainbat eta hainbat gauza dauzkagu buruan, beteko ditugun edo ez hori da bakoitzak bere buruari galdetu behar diona. Batzuetan gure buruari jartzen dizkiogun helburuak zailegiak izaten dira, askotan fantasia-tik errealitatetik baina gertuago egoten dira, baina bakoitzarenak direnez bakoitzak sailka ditzala nahi erara,bete ditzala edo ez...

Gaur beste asmo batekin idazten dut, eguberriak pasa berriak direla eta sentimendu asko ditugu, tristuratik poztasunera doazenak. Ziur nago lasaitu ederra hartu duena gure poltsikoa dela.

Kontsumoa gora eta gora doala ez da gauza berria, nabarmen egiten du urteko zenbait garaitan, besteak beste eguberrietan, udan, aste santuan... eta ez dira garaiak bakarrik, garaien artean egun solteak badira. Gure Balentino maitearen eguna adibide argia da. Guk "opariak" izena asmatu genuen (Opari: norbaiti eskaintzen zaion gauza) kontsolazioa moduan erabiltzen dugu opari ezin zaie ezetzik esan eta!

Gauza berriak, aurrekoak baino modernoagoak, horiek dira gure kuttunenak, zoratzen gaituztenak, eta badirudi hauek ez baditugu ez garelara ezer.

Kontsumismoa ez da erosi, erabili, bota eta berriro dendara egiten dugun bidea soilik, globalizatua dagoen sistema bat da, enpresa handiek txikienak jaten dituzte.

“Gauza berriak, modernoagoak, horiek dira gure kuttunenak”



Batzuk kontsumismoak sortutako pobreziaz ohartzen dira eta hau kontpontzen saiatu. Konturatzea eta tiriatxoak jartzea ordea ez da nahikoa izaten, egoera samurtzen da, baina ez da aldatzen.

Baina honek ere badu bere alde ona, kolorea.

Hain zuzen ere hau da gaur azpimarratu nahi nuena, kolorea, "pintzeladak" honetarako aipamen berezi bat egin nahi nuen artisten inguruan, ez dira langile soilak, sortzaileak dira, artisauak. Gai dira hondakinetatik gauzak sortzeko, botila huts batekin argia emango digun lanpara sortzeko.

Garrantzi gutxiegi ematen diegu baina gaur egun dauzkagun "altxor" guztien erantzule dira, oinarria eraiki zuten, beharrei aurre egiteko erabiltzen zituzten sormenak. Hori pixkanaka aldatzen joan da, beharrak eta kalitatea alde batera geratzen dira diseinuaren atzetik. Milaka mota, forma eta koloretako materialak saltzen dizkigute.

Darwin-en hitzei kontra egin nahi diet (hori onargarria bada) indartsuenak ez luke gailendu behar beti. Ahulena ahul izan daiteke bai, eta gizartera moldatzea agian kosta egingo zaio. Baina inork ez du esan gizartea ezin denik ahulenera moldatu.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

ETXEZ ETXeko EGUR SALMENTA

IRTE OSDAN ZEHAR

EGURRA EXPRES

☎ 635 90 91 95
✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu



Desg-aste kulturala

Kaixo irakurle, hasteko, mila esker bizikletaren "lapurretaren" historia gustuko izan zenutela esan didazuen guztioi! Zerbait interesgarria kontatzen dudanean irakurtzen duzuela erakusten dit honek! Ez zait erraza egiten beti gai interesgarria aukeratzea, batzuetan argi dut, besteetan ez eta inprobisatzen dut... Horrelakoa da aldizkako idazle honen bizitza! Eta oraingoan, ba argi-argi ez dut, baina hitz egin behar den gai bat dela iruditzen zaidanez, hor noa!

Hasteko, esan behar dut distantziatik hitz egiten ari naizela, egoera ongi ezagutu gabe, beraz, akatsen bat edo beste egin dezaket, barkamena eskatzen dut alde aurretik horrela bada. Urria aldera jada enteratu nintzen hainbeste urtez eta hain ongi abenduan aste kulturala antolatzen zuen taldeak, aurten ez antolatzea erabaki zuela. Oinarrian, urte askotako nekea dagoela uste dut. Ez zitzaidan berri txarra iruditu, nabaritzen nuelako aurreko urteetan neke hori bazegoela, eta hori sendatzea ezinbestekoa iruditzen zitzaidan, bai pertsonen osasunerako, baita taldearenarentzako eta inguruarentzako ere. Inguruan kontua zabaltzeko modu egokia ere iruditzen zitzaidan, ze seinale argiagoa ikusteko taldean beharrak zeudela? Eta argi dago, ez da antolatu behar antolatzeagatik, errutinarengatik edo egin behar delako.

Urte batzuk badaramatzat kultur antolaketetan eta nire esperientziak erakutsi dizkidan kontu batzuk datozkit burura. Ekitaldiak zergatik antolatzen ditugu? Dirua dagoelako? Gure lana delako? Antolakuntzan ezinbesteko ezaugarri bat egon behar duela ikasi

dut denbora pasa ahala, eta da antolatzaileari bereziki interesatu behar zaiola egiten duena. "Jendearentzako" faktorea sartzen denean, orduan asko zailtzen da kontua. "Zer gustatuko ote zaie" ariketa gogorra da. Besteentzako ustetan ari banaiz eta besteek ez badiate erantzuten, ba ez nabil ongi...

Kultur antolatuaren garaian bizi gara, non ekintzak dauden eta interesatzen bazaizkigu bagoaz, eta bestela ez. Eskerrak oraindik herrietako festetan pixka bat antolatzen dugun gure herrietan

"Eskualde bakoitzeko jendeak hartu behar luke kultur bizitza bere gain"



(aupa herri komisioaaaak!), baina bestela... ezer gutxi! Ba jaun-andreak, kultur astea eta horrelako ekintzak ez dira zerutik datozen ekintzak, jende talde batek lan handiz antolatutako ekintzak dira. Uste dut parte hartzea denontzat izaten dela atsegin (kontzertuak, umeen saioak, hitzaldiak, afaria, gaupasa...) baina antolatzeke garaian... Gehixeago kostatzen zaigu ezta?

Eskualde bakoitzeko jendeak hartu behar luke kultur bizitza bere gain. Araitx-Beteluk mesede luke talde kultur antolatzaile dinamiko eta motibatu bat izango balu, eta izan du, baina hori aldatu da. Sortuko al da berririk? Horretarako, bakoitzak duen interesa erakutsi eta guztiena batuz antolatu beharko da, norbere interesetatik, ingurua ezagutuz eta mimatuz, kultur programaketa osatuko den, jendea elkarrekin egoteko, mundua gurera etortzeko, ikasteko, gozatzeko...

Ni ez naiz Araitzen bizi, baina gertu nago. Aurreko kultur taldean ez nengoen, baina "orbitatzen" nuen bere inguruan. Nire bizimoduarekin, ongi neurtu behar dut jada (aurreneko aldiz bizitzan!) zenbat borondatezko historia-tan sartzen naizen, pila batean nago eta ez dut erre nahi. Badaude alderdi batzuk nik lagundu ahal ditudanak. Beste batzuk berriz ez, eta bertako jendearen gogoz eta lanez atera behar dute. Pixka mordo batek asko eder bat egin dezake. Baina hemen zu sartzen zara. Honaino irakurri baduzu, zerbaiten interesa baduzu gure inguruak bizi berezia izan dezan. Egongo ote da datorren urtean aste kulturalik? Urte kulturala opa dizuet, aurrera!

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefona eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAR 948604884



Promozio bereko 30 etxeetako balkoiak erortzen ari dira

Aseguru-etxe bati dagoeneko erreklamazioa egin diote Lekunberriko 30 etxebizitza inguru horietako jabeek.

Euren balkoiak askatzen ari dira eta jada horietako bat erori egin da. Beste batzuk ordea erortzeko arriskuan daude eta igeltseroari deitu eta zurkaizten ari dira. Badira ere dagoeneko balkoi osoa bota eta berriak egin behar izan dituztenak. Kontsultatutako teknikarien arabera, promozio horretako etxe guztietako balkoiak lehenago edo beranduago erori egingo dira, “denbora kontua da”.

Hala azaldu digu Julio Calongek. Bera kaltetuetako bat da. Zortzi urte dira bere etxea erosi zuela eta izandako arazoengatik joan den azaroaren 21ean bere etxaurreko balkoia bota eta berria egin behar izan zuen.

Kexa edo erreklamazioaren arrazoiaren atzean etxe horiek duten poliza dago. 2015eko abenduaren 25ean

iraungitze data duen hamar urteko aseguru polizari eutsi nahi diete orain kaltetutakoek. Poliza hori VLV (V́ctor Latorre Val) eraikitzaileak kontratatu zuen, 30 etxe inguru horiek egin eta EGWIN PARQUES INDUSTRIALES taldearen birtartez komertzializatu zituenean. Orain egitura akatsek sortutako ustezko kalte material horiek ordaintzea espero dute kaltetuek.

Julio Errotaldea kalean bizi da bere emaztea den Rosarekin eta lehenengotariko bat izan zen arazoaz konturatu eta konponbidea bilatzen hasi zena. “Konturatu ginen gure balkoia askatzen ari zela eta ikusten genuen beste bizilagun batzuk ordurako euren balkoiak eskuarriekin edo eskuarekin konpontzen zebiltzala. Batzuk guztiz kendu zituzten, arazo

berdina zutelako. Horregatik 2014ko maiatzean gure balkoia aseguratzeko aurrekontuak eskatzen hasi ginen”.

Juliok azaldu digunaren arabera, abuztuaren 10ean, bere kale berean, Errekondoa 5ean, etxaurre nagusiko balkoia ezustean erori zen. Gaeuz gertatu zen ezbeharrak eta sorpresaz hartu zituen etxebizitzako jabeak. Balkoi horretako zoru osoa bere oinarriko egitura eta guzti erori zen. *“Larriena da, egun hartan norbait balkoi horretara atera balitz istripu larri bat gerta zitekeela, baita inor azpian harrapatuko balu ere”.*

Arazoaz jabeturik, abuztuaren 12an, Lekunberriko Udaleko arkitektoa zen Itziar Lazurteguik, etxebizitza hori bisitatu eta txosten bat igorri zuen Udalera, ezbeharrak eragin zuten materialen argazkiekin eta gertatutakoaren argazkiekin. Horren atzean egon zitekeen arrazoi teknikoak aztertzen hasi zen Itziar. Handik bi egunetara, abuztuaren 14an, VLV eraikitzaileak eraikitako promozio bereko etxebizitza guztietara txosten tekniko bat igorri zuen Udalak, adieraziz hamar urterako aseguru bat indarrean dagoela, zeinak eraikinarren akatsengatik egiturazko kalteak estaltzen dituen. *“Momentu horretan, gaitutako langile profesionalak balkoi horiek guztiek berrikusi ditzatela gomendatu ziguten, eta aseguru-etxearekin harremanetan jar gaitezela espediente bat ireki dezan, non poliza bat badela adieraziko duena”.* Bestalde, Udal Zerbitzuak kaltetuen zerbitzura jarri ziren behar zuten

edozein kontsultan egin edo argibide



Julio eta Rosaren etxeko balkoia kentzen.

deak emateko. Bien bitartean, udal arkitektoa etxez etxe joan zen kaltetutako etxe guztien txosten bat prestatzeko, kasu bakoitzean ikusitako kalte edo egoerari buruz. *“Itziar, joan den urrian hil zen mendi istripu batean eta asko sentitzen dugu gertatutakoa, berak egindako ikerketak eta jasotako ondorioak eta dokumentuak gure errekamazioa behar bezala egiteko lagunduko digutela espero dugu”.*

“Larriena da istripu larri bat gerta zitekeela”

Abuztuaren 19an, aseguru etxeari horren guztiaren berri eman zioten Julio eta Rosak eta txosten zenbaki bat ireki zieten. Handik hiru egunetara, aseguru etxeak bidalitako aparejodorea etorri zen balkoia berrikustera. Berehala zurrakitzeko esan zien, erortzeko arriskuan zegoela eta inor azpitik pasatzea saihestu behar zutela *“Pentsa! Ez zen balkoira irtetera ere ausartu! Eta guri ere etxetik irten eta ateratzeko kontu handiz ibil gintezela esan zigun”.*

Irailaren 4an aseguru-etxeako arkitektoaren txanda izan zen, Luis Goñi Jauna joan zen Julioren etxeko balkoia ikustera eta txosten bat igorriko ziela esan zien, oraindik iritsi ez dena. Gauzak horrela, hil horren amaieran, Juliok

eta Rosak Nieves Ayestaran arkitektoarengana jo zuten euren kontutik eta berak peritu-txosten bat egin eta ziurtargiri bat igorri zuen adieraziz egiturazko kalteak direla balkoia duena, jarritako zurrakitzak kenduz gero berehala eroriko zela. *“Nievesek txosten horretan jasotako zehaztapen teknikoaren arabera badirudi gaizki eraikita zegoela eta ziur aski promozio bereko eraikin guztiek arazo berdina izango dutela. Txosten hori Udalean erakutsi eta bestetik gure abokatuaren esku utzi genuen”.*

Beranduago, urriaren 14an, Juliok Lansalot Anaiei aurrekontua eskatu zien balkoia bota eta horren ordez bi behatoki eraikitzeko, zeinak askoz ere arinagoak, seguruagoak eta ekonomikoagoak diren. Eta horixe egin zuten. Azaroaren 21ean zurrakitzak kendu, balkoia garabi baten laguntzaz atera eta kaltetutako elementuei argazkia atera zieten eta baita ederki gorde ere aurrerago inori erakutsi beharko balitzaizkio. *“Egurrezko habeak itxura negargarria zuten. Etxaurrean sartuta zegoen egur guztia ustelduta zegoen, onddoz eta hezetasunez beteta. Gainera begi bistaz ikusi genuen egurren lodiera erdira murrizten zela paretan sartu eta 4 zentimetrora. Hor argi ikusten zen onartutako proiektua ez zela bete eta balkoiaren egiturazko segurtasuna arrisku larrian jarri zutela”.* Hori omen da hanka sartze nagusietako bat.

Azaroaren 3an, kaltetutako guztien idatzi bat jaso zuten aseguru-etxea-

ren aldetik, non adierazten zitzairen egurra ez dela oinarrizko egitura bezala onartzen eta arrazoi horregatik ez direla kalteen kargu egingo. Hala dio idatziak: “2005/12/07n igorritako E04071220055ko emisio aktak azaltzen den polizaren baldintza partikularretan aurreikusten da ez dela egurra ez dela oinarrizko egituratzat jotzen eta horren kontrola ez du barne hartzen”. Julio: *“Hau da, 400 kilo hormigoi, baldosa, zokalo eta guzti, hori ere egurra dela eta ez dutela garrantzirik eta eraginik eraikinaren egituran. Are gehiago baieztatzen ari dira, lehenengo solairuko 100 zentimetroko sakonera duten hormigoizko horma-habe batzuk zeinaku pisu handiari eutsi behar diotena, egurrezko osagarri sinpleak baino ez direla”*.

Azaroaren 26an Udaletxean egin zen bilera batera deitu zituen Jose Mari Ayerdi Alkateak eta Iracherekin, Kontsumitzailearen Defendatzailearekin, eta kasu hauetan aditua den abokatu batekin bildu ziren eta euren eskubideen defentsa egin zezaten eskatu zieten kaltetuek, sor daitezkeen gastuak ordaintzeko prest egonez.

Julio: *“Abenduaren 19a den honetan, Iracheren berrien zain jarraitzen dugu. Nire etxeko balkoiko eraberritze lanak amaituta eta ordainduta daude, eta*



Julioaren etxeko itxura berria, aldatutako balkoiekin.

“Aseguru-etxeak dio egurra ez dela oinarrizko egitura bezala onartzen”

beste batzuk konpontzen ari dira”. Bien bitartean, kaltetutakoek lan horien erantzule nor egingo den jakiteko zain daude, gastua batz bestea 5.000 eurokoa baita etxe bakoitzeko, eta guztira 30 inguru dira.

Julioentzat honen guztiaren gauzarik larriena da eraikinaren proiektuan balkoiak eraikitzeko modu bat zetorrela eta bere euskarriak eta proiektu hori aldatu egin da, eta egurrezko habe bat etxaurrean 100 zentimetro barrurantz sartu behar zuen kasuan 65 zentimetro baino ez dira sartu eta egurraren lodiera ere ia erdira murriztu zuten. Eta horren ondorioz, erabiltzaileen eta kaletik doan jendearen segurtasuna arriskuan jarri da. *“Egiazko ezbehar bat pasa zitekeen! Ikus dezagun Justiziak zer dioen...”*. —



>> Euskara Zerbitzua

Euskara erabiltzeko tresnak eta ereduak

Gaur egun euskara erabiltzeko baliabide ugari eskaintzen dituzte teknologia berriek. Guk erabilgarrienak izan daitezkeen zerrenda luze bat egin dugu, noizbait beharra izanez gero baliagarriak izanen zaizkizuelakoan. Ale honetan hiztegi eta baliabide ezberdinen atariak aurkeztuko dizkizuegu

HIZTEGIAK:

- Hiztegien bilduma: gai ezberdinetako hiztegiak biltzen dira honako esteka honetan: www.hiztegi.net
- Hiztegi batua: www.euskaltzaindia.net/hiztegitxoak
- Orotariko euskal hiztegia: www.euskaltzaindia.net/oeh
- Elhuyar hiztegia: www.elhuyar.org
- Euskalterm: www.euskadi.net/euskalterm
- Harluxet hiztegi entziklopedikoa: www.euskadi.net/harluxet

BALIABIDE BILDUMA:

- Lantalan: lan munduan euskara gehiago erabili nahi duten pertsonen, enpresei eta bestelako erakundeek laguntza eman nahi izan die, komunikazio-euskarria (bloga) eta euskaraz lan egiteko baliabideak eskainiz: www.lantalan.com
- Buruntzaldeko Euskara zerbitzuak: www.euskara.buruntzaldea.org
- UZEI: erreferenteetako bat da hizkuntza-teknologiaren ikerketa eta garapenean, eta hainbat baliabide eta tresna garatu ditu. Honengatik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko kide izendatu zuten: www.uzei.com

- HAAE- IVAP: www.ivap.euskadi.eus. IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren oraingo Herri Administrazioa eta Justizia Sailari atxikia. euskal administrazio publikoen jardunerako bereziki garrantzitsuak diren hiru eremuren inguruan biltzen dira:
 - Herri-administrazioen zerbitzurako langileak hautatzea eta prestatzea.
 - Herri-administrazioen zerbitzurako langileen euskalduntzea, itzulpenak, interpretazioa, terminologia eta administrazio-hizkeraren normalizazioa.
 - Ikerlanak egitea eta eskolak ematea, bai administrazioaren inguruan, era zabalean, bai euskal autonomiaren berezitasunen inguruan zehazki, eta baita liburuak zein aldizkari espezializatuak argitaratzea ere.

BALIABIDE EDO TRESNA ZEHATZAK

- Esaldi ereduak, agiri ereduak negozio eta enpresentzat, ortotipografia: www.euskara.euskadi.eus
- Daten eta zifren bihurtgailua, ordutegiak, laburtzapenak: www.euskaraz.org/idazkiak/
- Fakturak: www.baieuskarari.org
- Aditzak: www.aditzak.com
- Zalantzak, dudanet zerbitzua, euskal izendegia eta deiturak, hitanoa: www.euskaltzaindia.net

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.
 Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.
 Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.
 Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.
 Interneten bereizten gaituen puntua.
 Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.
 Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.
 Anima zaitzez eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean.

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean



Iñigo Oreja

Ibeltzak 18

Zorionak... eta beste urte askoan segi holako argazkik ateatzen!!!

Ongi pasa zure eune eta muxu haundi bat...

Amatxo, Egoitz eta Enekon partez!!!



Enara Etxarri

Urtarrilaren 18an Urte 1

Zorionak etxekoan partetik!

Enaratxuuu! Mila zorion urte bat bete-
tzearekin batera! Muxu erraldoi bana
aitatxo, amatxo eta Araikaren partez.



Luis Urbizu

Urtarrilaren 31n 67 urte

Mailoperekin kontu kontari
ibiltzeagatik eskerrik asko!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Hostal Betelu
<http://www.hostalbetelu.com>
Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak
Etorri eta
on egin!
Erreserbak:
948513026
676145637

BETELU
PNEUMATIKOAK
TAILER MUGIKORRA
NEUMATIKO ALDAKETA
ZULATZEEN KONPONKETA
Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

SAstraka
auto 4x4
Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)
Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)
Industrialdea, 9
31870 Lekunberri
948.60.48.06 Iñigo
www.sastraka4x4.com

gure eskubidea delako!

Familia-medikua edota pediatria
euskalduna eskatu

mediku
euskalduna

Mediku edo pediatria euskalduna nahi duzu?

Asko dira osasun etxera joaten diren bakoitzean erdaraz egitera behartuta daudenak eta hori batzuetan oztopoa ere bilakatzen da. Batez ere adineko jendearen kasuan edo haurren kasuan.

Eremu euskalduneko herri askotan haurrak eta pertsona adinduak euren egunerokoan euskaraz egiten dute eta ez dute erdaraz hitz egiteko eta ulertzeko erraztasunik. Horregatik gertatzen da medikuarenera edo pediatararengana joaten diren bakoitzean, aitona edo amona horren seme-alabek lagundu behar izatea elkarrizketa hori behar bezala bideratzen, itzultzaile lanak egin behar izaten dituzte askotan eta medikuaren eta gaixoaren arteko zubi lanak egin. Haurrekin askotan berdina gertatzen da, ez dira gai sentitzen dutena erdaraz behar bezala azaltzeko edo pediatriak esaten diona ongi ulertzeko.

Osasun etxean gertatzen den egoera bera gertatzen da ordea bestelako zerbitzu askotan ere, horregatik eremu euskalduneko herrietan (UEMAkoak izan edo ez izan) zerbitzuak euskaldunak izan daitezkeen lanean dabilta UEMAn. Aurtan bereziki osasun etxeetan mediku eta pediatria euskaldunak eskatzeko kanpaina bat jarri dute martxan.

1986an Nafarroako Parlamentuak Euskararen Legea onartu zuen, bertan nafarrei administrazioarekin guk aukeratutako hizkuntzan aritzeko, eskubidea aitortzen zaigu, zein euskaraz zein erdaraz. Gainera, eskubide hori poliki-poliki beteko dela dio eta horretarako administrazioak baliabidek jarriko dituela. Baina UEMAn ustez lege hori onartu zenetik 28 urte bete diren honetan, hori

ez da inola ere bete eta eremu euskalduneko herri askotan mediku eta pediatria erdaldunak dituzte. Kanpaina hau 2014ko azaroaren hasieran jarri zen martxan Euskal Herrian. Helburua: mediku eta/edo pediatria (titularrak) erdaldunak dituzten herritarrek zerbitzu hori euskaraz eskatu ahal izatea.

Gurean, eskualdeko guraso guztiak daukate eskaera orria betetzeko aukera, horretarako baldintza bakarra euren seme-alaben pediatria erdalduna izatea da. Osasun etxeko erreklamazio orriak bete baino ez dira egin behar, beste edozein gaitarako erabiltzen diren berdinak. Kasu honetarako UEMATik baliagarria den adibide bat ematen digute erreklamazio orrian jartzeko: Mediku edo haren ordezkoi/pediatria euskalduna izateko eskubidea dut eta horretarako, pertsonal organikoan behar diren aldaketak egiteko eskatzen dut. Eskaera horiek Osasunbidera bideratuko dituzte eta orri horren kopia (eskatzaileari ematen diotena) bertan utzi UEMATik eskaera horien jarraipena egin dezaten.

Gure eskualdean, Pediatria bat da erdalduna, gainerako langile guztiak (titularrak direnak) euskaldunak dira. Horregatik, pediatria erdaldunaren zerbitzua jasotzen duten umeen gurasoek egin dezakete eskaera.

Beraz, zure seme-alabek pediatararekin euskaraz egiteko aukera izan dezaten nahi baduzu, egin orain zure eskaera!



“Buruak jarri ohi dizkigun mugak hautsi eta gorputza jarriko dugu martxan”

- 16 -



Norbere barne-bulkadak jasotzeko gaitasunean gorputz fisikoa sentiberagoa izan dadin lortzea edo hitzezkoa ez den modu batean adierazten den egia emozionala aurkitzea. Horiek izanen dira besteak beste hurrengo otsailaren 13, 14 eta 15ean Astizko Aterpetxean emango duten Gorputz adierazpenari buruzko ikastaroan landuko dena. Lekunberriko Miren Tirapu aktorea izanen da ikastaroa gidatuko duena.

Nolatan antolatu duzue ikastaro hau?

Ni antzerkilaria naiz eta noizbehinka ikastaroak eskaintzen ditut. Eskualdean oraindik ez dut bakar bat ere eman eta aukera sortu den honetan pozik nago. Inguruko jendeak antzerkia gehiago ezagutu dezala gustatuko litzaidake

Zer landuko duzue ikastaro horretan?

Nik antzerkia zer den transmititu nahi diet ikastaroan parte hartuko duten horiei. Antzerkia ez baita soilik oholtza baten gainera igo eta ikasitako testuak botatzea, hori baino askoz gehiago da.

Kasu honetan gorputz adierazpena landuko duzue...

Bai antzerkia besteak beste gorputz adierazpena lantzeko tresna bat da.

Nori dago zuzenduta?

Edonork eman dezake izena. Argi utzi nahiko nuke ez dela aktoreentzat soilik zuzendutako ikastaro bat. Helburua gorputza landu eta burua pixka bat alde batera utzita gorputzak eskatzen dizuna ateratzea izango da. Helduei dago zuzenduta, 18 urtetik gorakoentzat. Oso aberasgarria litzateke 18 urteko gazteak 30 urtekoekin edo 40 urtetik gorakoekin elkartuko balira.

Hiru eguneko ikastaroa izanen da...

Bai. Ostiral arratsaldean taldekideak ezagutzeko ariketa simple batzuekin hasiko gara. Larunbatean zortzi orduko entrenamendu sakona izanen da, lau ordu goizez eta arratsaldean beste lau ordu. Igande goizean ere ariketa ezberdinak landuko ditugu eta arratsaldean amaituko dugu.

Eta ze ariketa mota izango dira?

Ariketa fisikoa izango da. Erlaxazio, desblokeo psiko-fisiko eta irudimen ariketatik abiatuko gara. Gaur egun oso zaila den gauza bat lantzeko ariketak egingo ditugu, burua erabili beharrean eta intelektualak diren gauza guztiak alde batera utzi eta gorputza jarriko dugu martxan, gorputzak eskatzen dizuna entzun eta egin, espazioa librea izango da. Helburua sortutako emozioak moztu gabe ateratzea izango da. Ariketa horiekin norberak bere burua ezagutzeko aukera izango du. Normalean heldutasun batera iristen garenean muga batzuk jartzen dizkiogu geure buruari, jendaurrean batez ere, horregatik espazio horretan norbera

den bezalakoa adieraztea nahi dut. Seinale ezberdinen aurrean gure gorputzak dituen erantzuteko mekanismoetan kontzientziatu.

Deialdia soilik eskualdeko jendeari dago zuzenduta?

Ez. Ikastaroa Astizko Aterpean egingo denez bereziki eskualdeko jendeari eta nafarrei dago zuzenduta baina edonongo jendeak eman dezake izena. Ikastaroaren prezioa 150 eurokoa da eta prezio horretan dago sartuta lo egiteko lekua eta asteburuko pentsio osoa. Hala ere, asko gustatuko litzaidake nafarrez osatutako talde bat, uste baitut hemen asko daukagula egiteko antzerkiari dagokionez. Jendeak antzerkiarekiko duen beldurra kentzea gustatuko litzaidake, jendeak muga hori apurtzen badu interesa piztuko baitzaio. Horregatik ongi legoke zenbait guraso etorriko balira jabetzeko antzerkian zenbat arlo ezberdin lantzen diren eta zenbateko garrantzia duen.

“Aberasgarria litzateke ikastaroan adin ezberdinetako pertsonak elkartuko balira”

Onuragarria izan daiteke adibidez jendaurrerako beldurra galtzeko ezta?

Bai. Antzerkia komunikazioa da eta jendearen aurrean jartzen zarenean diskurtso bat, ideia bat, pentsamendu bat edo emozio bat defendatu behar duzu besteen aurrean eta horretarako beldur eszeniko hori apurtzea oso garrantzitsua da, ez bakarrik antzerki mailan. Bizitzako egoera ezberdinetarako lagunagarria da guztiz zure ideia bat egonkortasun batekin defendatzeko gai izatea, ziurtasunez eta zure gorputza kontrolatuz. Antzerkiaren kasuan, aktoreak dituen tresnak, gorputza eta ahotsa dira

eta horiek behar bezala erabili behar dituzu besteengana iritsi eta uler zaitzaten.

Ezagutzen ez zaituzten horientzat, goazen aurkezpen txiki bat egitera: Jaiotzez Iruñekoa zara...

Ba, Iruñekoa naiz, baina amona Lekunberrikoa, Erramosenekoa eta ni asteburuetan eta udan honera etortzen nintzen eta orain lau urte daramatzat hemen bizitzen.

Aktore edo antzerkiarekin lotutako ikasketak egin dituzu?

Bai, interpretazio ikasketak egin nituen. Lehendabiziko urtea Basauriko eskolan egin nuen, baina urtebetera itxi egin zuten eta Bartzelonara joan nintzen eta bertako Zine eskolan lau urtez ikasten ibili nintzen. Behin ikasketa horiek amaituta, han gelditu nintzen eta beste lau urte eman nituen ikastaroak egiten eta pertsona konkretu batzuekin lanean proiektu txikietan parte hartzen eta umeentzako antzerkia egiten. Gero, handik Kubara joan nintzen aktore zuzendaritza ikastaro bat egitera eta ondoren Poloniako Grotowski Institutuan ere beste ikastaro bat egin eta Bartzelonara bueltatu nintzen.

Kanpoan ibiltzeak lagundu egin dizu?

Bai, asko. Azken batean kanpora aterratzeak prestakuntza berezi bat jasotzeko aukera ematen dizu, diziplina asko ezagutzen dituzu, leku ezberdinetako jendea, teknika ezberdinak eta oso aberasgarria izan da niretzat.



elkARRIZketa:

“Edonork egiteko moduko ikastaroa da, norberak berea eman eta ongi pasatzea da helburua”

Beharrezkoa akaso?

Niri beharrezkoa iruditzen zait atzerriera ateratzea, baina ez lan honengatik bereziki. Hemen ere formakuntza ona jaso dezakezu, profesional ikaragarriak ditugu, baina garrantzitsua da kanpora ateratzea, horrek askotan bertakoa gehiago ezagutzen laguntzen dizu.

Eta orain zertan zabilta lanean?

Duela lau urte oraindik Bartzelonan nengoela Ander Lipus topatu nuen. Euskal Herriko antzerkilari bikain bat da bera, nire irakaslea izan zen Bilbon eta urteen bueltan berriz ere Bartzelonan elkartu ginen. Lipusek Artedrama izeneko antzerki plataforma bat dauka eta Aste Santuan antzerkilari topaketa batzuk antolatzen dituzte. Astebeteko ikastaroak eskaintzen dituzte topaketa horietan eta irakasle moduan aritu nintzen. Gero proiektu bat eskaini zidaten, Joseba Sarrionandiak idatzitako “Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako” ipuin sortatik ipuin batzuk aukeratu eta urte betez eskolaz eskola ibili ginen lan hori antzetzten.

Horren ondotik beste proiektu batzuk etorri ziren...

Bai. Gero “Publikoari gorroto” antze-lanarekin hasi ginen eta urtebeteko bira egin genuen, eta iaz *Dejabu Panpin* Laborategiarekin eta *Le Petit Theatre de Pain*-ekin antzeztutako Hamlet lanarekin biran ibili ginen ekainera arte. Eta orain sorkuntza berriak prestatzen gabiltza.

Nola ikusten duzu Euskal Herria antzerkiari dagokionez?

Larri, batez ere euskal antzerkia. Esan bezala Nafarroan nik uste kriston lana dagoela oraindik egiteko. Antzerkia egin egiten da, baina ez dago eskaintza handirik, Gobernuak ez du gehiegi laguntzen eta ematen duen laguntza hori oso gaizki banatuta dago.

Krisiarekin beherapena nabaritu al da?

Egia da Nafarroa ez dela behin ere izan

antzerkigintzan aberatsa, baina murrizketekin are gutxiago eta baldintza onak nahi baldin badituzu dirua behar da. Aktoreak entseguetan lanean ari dira eta askotan ez zaie behar bezala ordaintzen, antzerkia ez dagoelako baloratuta, ez da profesio normal bat bezala hartzen. Eta ondorioz azkenean aktoreak entseguak kobratu gabe egiten dituzte, emanaldi asko oso merke uzten dira eta horrekin guztiarekin ez da baloratzen antzezan baten atzean dagoen lana.

Azal iezaguzu, zer dago antzezan baten atzean?

Ez da taula gainean ikusten dituzun pertsona horien lana bakarrik. Horren atzean jantziak egiten dituztenak daude, argien diseinua, soinuaren diseinua, kartela egiten duena, bulegoan lan egiten duen pertsonaren lana ere ordaindu egin behar da... Eta diru nahikorik ez denean, askotan pertsona batek lan horiek guztiak egin behar izaten ditu... Hala ere, egia da publiko maila igotzen ari dela euskal antzerkian. Eta pozgarria da. Antzerkiari errespetu edo beldur handia izan dio beti jendeak, antzerkira joan eta aktore batek

bat-batean publiko aurrera ateratzeak eta antzerkiak duen zuzentasun horrek jendea izutu egiten du.

Publiko ere aldatu egingo da leku batetik bestera?

Bai izugarri aldatzen da herri batetik bestera, baina gauza bat esan behar dut, publiko naparra da hoberena.

Ikastaroari begira zer behar du pertsona horrek ikastaroan parte hartzeko?

Ba gogoia, bere egunerokoa hausteko gogoia. Edonork egiteko moduko ikastaroa da, gainera nik ez ditut inola ere behartuko, pertsona bakoitzak egingo du nahi duena eta ikastaro horretan jendeak emango du nahi duena. Horregatik, ez da ezer pasatzen norbaitek ariketa bat egin nahi ez badu, besteek nola egiten duten ikusi eta kitto, norberak berea eman behar du eta ongi pasatzera goaz.

Non eman behar da izena?

Izen emateko epea ikastaroa baino bi aste lehenago itxiko dugu. Izen emateko edo bestelako informazioa jasotzeko jarri harremanetan 677 638 749 telefono zenbakian.

Mirenek urteak daramatza aktore lanetan, atzerrian ibili ondoren, duela lau urte Lekunberrira etorri zela eta egun antzezan ezberdinetan parte hartzen dabil.



19. Korrikak laguntzaileak behar ditu

Martxoaren 19an abiatuko da Korrika 19 Urepeletik eta martxoaren 29an iritsiko da Bilbon izango duen helmugara. Oraingoan Oskorri arduratu da abestiaz, Sautrela abestiaren moldaketa egin du. Korrikako jardunaldi bakoitzean euskararekin lotutako eragileren bat omentzen da eta 19. honetan Durangoko Azoka omenduko dute. Abestiaren aurkezpena bera Durangoko Azokan bertan egin zuten orain hilabete.

Hain zuzen ere, hilabete gutxi batzuk gelditzen dira eta dagoeneko antolatzaileak dena martxan jartzen dabilta. Erakundeetatik jasotako diru laguntza ez da nahikoa izaten

eta horregatik Korrika Laguntzailea kanpainan parte hartzera animatzen dituzte herritarrak AEKtik. 12 euroko laguntza ematen dutenek pin bat eta 300 denda ezberdinetan trukatzeko deskontu bonuak jasoko dituzte. Ekarpen hori Larraungo euskaltegian egin daiteke, baita Korrikaren webgunean bertan ere, www.korrika.eus atarian. Bestalde, Korrika arropa ere salgai dago jada AEKan edo Euskal Herriko hiriburuetan dauden Korrika dendetan.

Hona hemen ikusgai "Denok Korrikara" bideoak <https://www.youtube.com/watch?v=V8rAFoToicA>

"Santa Ageda bezpera degu..."

Urtero bezala otsailaren 4an ospatuko da Agate Deuna bezpera. Larraunen, Lekunberrin urteroko erronda egin ondoren, aurten, Azpirotz eta Albiasura joango dira lagun koadrilak kaleetan koplak abestera. Araitzen, Araxes Ikastetxeak, Araxes Guraso Elkarteak, Aralar Udal Musika Eskolak eta Euskara Batzordeak antolatuta, Gaintzan egingen dute hitzordua arratsaldeko 17:00etan. Txistulari, trikitilari eta bertsolariez lagunduta herrian zehar kantari ibili ondoren askari goxoa egonen da denontzat. Egunean behar bezala atera dadin, koplak prestatzeko entseguak egingen dira Betelun.



- 19 -

Kontzertua omenaldi eta guzti

Joan den abenduaren 28an eskaini zuen Lekunberriko eliz abesbatzak Eguberriko kontzertua bertako parrokian. Aurten, Aita Donostiaren lanak eta Josu Elberdirenak abestu zituzten besteak beste. Konpositore handien abestiak eta kanta herrikoiak tartekatu zituzten. Aurtengo kontzertua ordea omenaldi batekin etorri zen. Juan Miguel Etxarri aritu da azkeneko hamarkadetan abesbatzaren zuzendari lanetan. Hemendik aurrera Javier Martijak hartuko du lekukoa. Juan Miguelek zuzendutako azkeneko kontzertua izanik abesbatzako kideek ezusteko omenaldi xume bat egin zioten egindako lana eskertuz eta aitortuz.

asegurogintza
aseguru aholkulariak

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratu egotea da

Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

Lagundu Mailope!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

OKM
ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555



Horra, horra, gure Olentzero!

Urtero bezala bai Araitzen eta baita Larraunen ere Olentzero aurreratu egin zen eta Gabon gaua iritsi baino bost egun lehenago Ibarberri eta Araxes ikastetxeetan izan zen neska-mutikoen eskutizak eta eskaera jasotzen. Abenduaren 19an ospatu zuten ikasleek Eguberrietako jaialdia. Bertan ikasle, irakasle eta gurasoek parte hartu zuten. Abesti ederrak eskaini zizkieten Ibarberrikoek Olentzerori eta Mari Domingiri. Araitarrek berriz, abestiez gain antzezlanak ere prestatu zituzten. Horra hor zenbait irudi.

- 20 -





Araxes eta Ibarberri ikastetxeetan dantza, abesti eta antzezlanekin ospatu zuten Eguberrietako jaialdia eta Olentzeroren etorrera. Azkaraten urteroko erronda egin zuten herrian barna.

CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.



Etxebizitzaren eraikuntza
eta erreabilitazioa

948 504 351 - 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com
Oztegin kalea 2, Lekunberri



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Marrazki lehiaketa

V. Marrazki lehiaketa antolatu dute Lekunberriko Ibarberri eskolan. Aurten forma geometrikoak gaitzat hartuta euren marrazkiak aurkeztu dituzte ikasleek. Maila guztietako ikasleek parte hartzen dute eta hiru kategoria ezberdinetan sailkatuta saritu dituzte irabazleak. Aurtengoan Guraso Elkar-tearen eskutik hiru ikasle hauek jaso zituzten euren sariak Olentzeroren festa egunean ospatzen den jaialdian:

- Haur Hezkuntzan : Oriol Orduna (4 urte)
- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloan: Lorea Ijurko (4.maila)
- Lehen Hezkuntzako 3. zikloan eta DBHn: Ciara Beaumont (BDH 1).



11 postu bigarren eskuko merkatu txikian

Espero baino jende gehiago ibili zen joan den abenduaren 6, 7 eta 8an Lekunberriko frontoian egindako bigarren eskuko merkatuan. Hiru egunez goiz eta arratsalde irekita egon zen merkatua. Guztira 11 postu jarri zituzten eta antolatzaileak pozik daude. Karmele Fernandez: *“Eguraldiak ez du gehiegi lagundu, baina uste baino jende gehiago ibili da. Batez ere jokuak eta euskarazko liburuak saldu dira, arropa apenas”*. Euren artean trukean ere ibili direla azaldu digute. Postuetako batean ateratako etekinak Malira joango dira eta beste postu bat Caritasen aldekoa da, gainontzeko guztiak norberarentzat. Dagoeneko maiatzerako berriz ere bigarren merkatu bat jartzeko asmotan daude antolatzaileak.



Espero baino jende gehiago bildu zen Lekunberriko frontoira.



urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

German Lasarte
ARBEONDO HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

Industrialgunea
Lekunberri 9 - 31870
LEKUNBERRI
Cyclos IREBER
BIZIKLETA DENDA ETA TAILERRA
Iñigo - 637 781 789
cyclosireber@yahoo.es - www.facebook.com/cyclosireber

panaderia alindegia RIOJA
GALBURU
Tel: 948 50 47 42 - 609 720 313
Alde Zaharra, 50 - 31870 LEKUNBERRI (Gipuzkoa)

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32



Plazaola Partzuergo Turistikoak Kidearen Eguna ospatu du bere 20. urteurrenean

100 urte pasa dira Plazaola trenak lehenengoz Gipuzkoa eta Nafarroako hiriburuen arteko ibilbidea egin zuenetik eta Plazaola Partzuergo Turistikoak ere 20 urte bete ditu aurten. Hori dela eta ekitaldi bereziak antolatu dituzte urtean zehar. Azkena, joan den abenduaren 10ean izan zen, Plazaolako Kideen Eguna ospatu baitzuten. Kide diren landetxe, hotel, artisau, denda eta enpresetako 30 lagundik gora elkartu ziren. Goizean Batzar Orokor batean bildu ziren urtean zehar egindako jardueren Memoria egin, 2015eko aurrekontuak eta kuotak aurkeztu eta etorkizuneko proiektuei buruz aritzeko. *“Bertaratutako parte hartzea handia izan zen, egindako proiektu batzuk aztertuz eta ideia berriak emanaz. Alde horretatik antolakuntzak partaidetza hori nabarmendu eta eskertu nahi du”.*

Bileraren ostean hamaiketako egin eta Plazaola natur bideko Mugiroko zati berrira joan ziren, amaitzear daude bertako egokitze lanak. Eguerdian, kide diren artisauen produktuekin prestatutako bazkaria izan zuten Kantinan eta amaitzeko 20. urtemugako logoa daraman plaka berriak eta 2015eko Egutegiak banatu zituen eta Partzuergoan 20 urte daramatzaten kideei Diploma batekin eskertu zieten hasieratik izandako fideltasuna.

Aldizkariko bazkideen batzarra

Urteroko Mailope Aldizkariko bazkideen batzarra egingen da hurrengo urtarrilaren 22an, arratsaldeko 19:00etan Mitxasenean. Aldizkariko bazkide guztiak gonbidatuta zaudete. 2014ko kontuak eta 2015eko aurrekontuak aurkeztuko dira, eta horrez gain Mailopeko egoera ekonomikoaren eta etorkizunaren inguruan eztabaidatu eta proposamen berriak aztertuko dira. Zuen parte hartzea garrantzitsua delako, deialdia luzatzen dizuegu.

Burujabetza energetikoari buruzko bina hitzaldi

Joan den abenduaren 12an, Xabier Zubialdek Nafarroako burujabetza energetikoari buruzko hitzaldia eman zuen Kalaxkak antolatuta. Bertan Nafarroako egungo errealitate energetikoa aztertu eta egungo krisi energetikoaren aurrean dauden irtenbide ezberdinak proposatu zituen. Nafarroa energia petrolioa eta gasaren erabilera izugarri handia da eta energia berriztagarrien kontsumoa berriz oso txikia da, %17 baino ez. Zubialdek Nafarroaren burujabetza energetikoa lortzeko zenbait ildo proposatu zituen. Besteak beste, krisi energetikoaren irtenbidea ez dela energia berriztagarrien ezarpena soilik. Jendartearen, behetik gora sorturiko eredu sozio-ekonomikoaren aldaketa bat behar dela uste du. Bestalde, urtarrilaren 23an, arratsaldeko 19:00etan, Larraungo Udaletxean, beste hitzaldi bat eskainiko da Goiener eta Som energia kooperatibako kideen eskutik: Zer da energia kooperatiba bat? Zeintzuk dira haien helburuak?, horiek dira besteak beste bertan landuko dituzten gaiak.

- 23 -



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



“Etxean erditzeak askatasuna eta lasaitasuna ematen dizu”

Ane Barberiak eta Egoitz Garrok bost urte daramatzate Lekunberrin bizitzen eta bertan osatu dute euren familia. Maddi eta Eneko txikia Lekunberrin jaio ziren, biak etxean. Anerekin izan gara etxean erditzearen esperientziari buruz aritzeko.

Biak etxean jaioak dira, hasieratik argi zenuen etxean erdituko zinela?

Bai, lehenengoz haurdun gelditu baino urte batzuk aurretik jada argi neukan etxean eduki nahi nituela.

Eta inguruan bazenuen halako esperientzia bazuen norbait?

Nire lagun batek lehenengoa ospitalean izan zuen eta oso esperientzia txarra izan zen beretzat, horregatik bigarrenarekin etxean erditu zen eta oso ongi. Askok hori egiten dute, lehenengoa ospitalean eta behin erditzearen esperientzia nolakoa den ezagututa bigarrena etxean. Baina nik oso argi neukan.

Zure kasuan esperientzia positiboa izan da etxean erditzea...

Oso ona, biek in gainera. Nafarroan bada etxeko erditzeaz arduratzen diren

emaginak, ni horietako batekin harremanetan jarri nintzen baina ezinezkoa zitzaion eta gero lagun baten bitartez jakin nuen Tolosan bazela beste emagin bat. Nire lagunak berarekin egin zuen erditu hurreko ikastaroa eta azkenean bere hitzalditxo batera joan ondoren Egoitz eta biok ere erdi-tze aurreko ikastaroa berarekin egitea erabaki genuen, Karmenekin.

Data hurbildu ahala erabakia zalan-tzan jarri zenuen edo beldurrak sortu zitzaizkizun?

Beldur pixka bat beti daukazu, baina nik ere argi neukan zerbait gaizki joanez gero edo pixka bat okertuz gero ospitalera joan beharko nuela. Bestalde, oso garrantzitsua da emaginarengandik oso urruti ez bizitzea. Nire kasuan, oso erditze azkarrak izan ditut eta ga-

raiz etorri zen, baina inoiz gertatu izan da ez iristea.

Zure bikotekidea eta emaginaz gainera beste inor egon zen zuekin?

Ez, ez, gu bakarrik, lasai-lasai. Maddirekin gauez deitu genion Karmeni. Oso azkar joan zen dena, bost orduko lana baino ez zen izan. Enekorekin jada bagenekien azkar joango zela eta Karmen eta bere senarra berehala etorri ziren, eta hala izan zen, hiru ordutan hemen zen Eneko. Gero berehala zure ohean sartzen zara haurrarekin eta dena oso polita izan da bi kasuetan.

Etxean erditzeak beste erosotasun bat dakar...

Bai, zure bikotekidearekin zaude, zure etxean goxo-goxo eta zure erritmora. Etxean nahi duzun posturan jartzen zara eta beste askatasun bat duzu. Baineran ere sartzeko aukera ematen dizu. Guk etxea ilundu genuen, kandelak piztu genituen... Egia da nire erditzeak oso azkarrak izanik kontrakzioak hasieratik nahiko gogorrak izan direla.

“Etxean erditzeko oso seguru egon behar duzu”

Emaginarekin aurretik konfiantza izatea oso garrantzitsua izango da ezta?

Bai, emaginarekin “feeling” ona izatea oso garrantzitsua da, oso momentu intimoa eta gogorrak direlako. Baina guk oso harreman ona egin dugu berarekin eta bi haurrak bere laguntzarekin izan ditugu. Gainera, oso erlazio berezia sortzen da hasieratik, emaginarekin duzun harremana ez delako soilik erditze-



Anek eta Egoitzek hasieratik argi zuten Maddi eta Eneko etxean jaiotzea nahi zutela.

ko egunean duzuna, haurdunaldian ere berarekin harremana izaten duzu, zure zalantzak argitzeko. Eta erditu ondoren ere harremana mantentzen dugu.

Emaginaren lana erditzeko momentuan zein izaten da?

Hasieran ez du ezer berezirik egiten, bera bigarren plano batean jartzen da, tarteka dilatazioa nola dihoan begiratzeko eta hasierako kontrakzioekin animatu egiten zaitu. Eta bukaeran ere umea nola dioan azaltzen dizu. Baina batez ere gorputzari entzun eta kasu egitea gomendatzen dizu.

Zalantzan dabilen pertsona bati zer gomendatuko zenioke?

Ospitalera, dudan baldin bazaude ospitalera. Oso seguru egon behar duzu etxean erditzeko, momentu hori iristen denean zure lanean kontzentratuta egon behar duzulako eta beldurrik gabe, bestela buruak gaizki pasaraziko dizu. Ziur egon behar duzu eta zalantzan egonez gero nik ospitalera joateko gomendatuko nioke.

Maddik gertutik bizi izan du Enekoren jaiotza...

Eneko jaio aurretik gure asmoa erditzerako momentuan Maddi amonarekin uztea zen, baina kasualitatez egun horretan amona falta genuen eta hain azkar joan zen dena ez geniola inori deitu.

Nola bizi izan zituen momentu horiek berak?

Ba egia esan oso ongi egon zen. Hasieran kontrakzioekin niregana hurbildu eta laztanak egiten zizkidan eta aitak azaltzen zion hori normala zela. Gero tarteka bere logelan egoten zen jolastan eta tarteka guregana etortzen zen. Eneko atera zenean ez zegoen aurrean, baina bai atera eta berehala eta bere zilborrestarekin eta guzti ikusi zuen.

Eta zein izan zen Maddiren erreakzioa?

Oso-oso natural hartu zuen, oso ongi. Momentu barregarri bat ere egon zen, emagina haurraren zilborrestea gurazeeekin moztera zihoala ikusi zuenean: “Ama! Pitilina moztuko diola!”. Oraindik asko oroitzen da momentu horretaz.

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA
IBILGAILU BERRIAK ETA ERABILIAK SALGAI

GRUAS Y TALLERES LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

M. Angeles Urrizalki
iragarkiak,
berriak,
eskelak...

**Diario Vasco eta
Diario de Navarrako
Korrespontsala**

948513056
699179437

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

49. Mendigoizale Eguna ospatu dute Aralarko San Migelen

1965. urtean hasi ziren Aralarko Santutegian Mendigoizaleen Egunaren bueltan biltzen, beraz 2015eko abenduan 50. urteurrena beteko da. Aurten abenduaren 21ean ospatu zen eta urtero bezala bertan elkartutako mendizaleek urteari agur esan eta urte horretan zehar hildako adiskideen omenez meza bat eskaini zieten eta esker ona emateko ere probestu zuten. Inguruko hainbat herritatik igo ziren mendizaleak, Lekunberri, Baraibartik, Araiztik, Madoztik, Uharteko Arakildik... Ttuturre Elkarteko kideek ere bi orduko ibilbidea antolatu zuten txikienezat. Behin hara iritsita meza ospatu eta Aterpean hamabitako eder batez gozatu zuten trikitalariez alaituta. Egun hotza izan zen, termometroak bost edo sei gradu baino ez zituen markatzen baina salda beroa, txistor pintxoak eta ardoaz barrenak ederki berotu zituzten, baita ondorengo dantza saioarekin ere. Eguerdian, zortzi autobus eta auto mordoak zegoen Santutegiko geltokian etxera bueltatzeko.

- 26 -



Ehunka lagun elkartu ziren Aralarko Santutegian. Arg: J.M. Zabaleta



Bazkide eta lagun guztiak Ttuturreko tontorrean. Arg: Felipe Bernabeu.

Ttuturre Mendi Elkartearen urteurren festa

Joan den azaroaren 23an Ttuturre Mendi Elkarteak bere 25. urteurrena ospatu zuen. Egungo bazkideez gainera, hasierako urteetako irteeretan parte hartzen zuten lagunak elkartu ziren. Goizean Ttuturrera igo ziren eta tontorrean Miguel Zabalak egindako buzoi berria jarri zuten. Aspaldian desagertua zegoen urte luzez han zegoen buzoi. Euskal Herriko gailur askotan topatuko ditugu egun buzoiak. Tradizioz mendizaleek behin gailurrera iritsita zein eskutitz bat uzte zuten hurrengoak jaso zezan, bertan ordua, eguna, izen abizenak eta jatorria edo helbidea jartzen ziren eta jasotzen zuenak berea uzten zuten. Orain gutxi Ttuturreko sortzaileei egin genien elkarrizketan Juan Miguel Etxarrik azaldu zigun moduan, behin ohartxoak jasota eskutitza ere idazten zitzaion aurretik egon zen mendizaleari. Horrela ba, behin Ttuturren buzoi berria jarrita, Lekunberriko Kattagorri Elkarteak bildu ziren eta bazkari eder batekin ospatu zuten eguna.

Bestalde, Elkarteak webgune berria estreinatu berri du, www.ttuturre.com, bertan irteeren egutegiak, irudiak eta informazio eguneratua aurkituko duzue.



Juanjo Gaite García
Odontologoa Kol. Zbkia. 317

Tel. 948 467 603
Altsasu

Tel. 948 604 804
Lekunberri

HORTZ KLINIKA www.clinicaiortia.net

**ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA**



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea Nº7
31890 BETELU

Tel: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com



Ezkurdia eta Iriarte txapeldun Elizondoko Txapelketan

Larraungo Pilota Eskolako Julen Ezkurdia eta Oinatz Iriarte txapeldun izan dira Elizondoko Txapelketako alebiren kategorian. Zorionak! Bestalde, Pilota Eskolan neguko txapelketari hasiera eman zioten joan den hilean. Dagoeneko bi jardunaldi jokatu dituzte.



Federatutakoak soilik joango dira irteera ofizialetara

Ttuturre Mendi Elkarteko 2015eko irteera ofizialetara soilik federatuak joan ahalko dira. Hala adierazi du Elkartek. Dagoeneko 2015. urtean federatzeko epea irekita dago, zein modalitatetan federatu norberaren aukera izanen da. Horretarako, Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakuntzako kontu korranteetako batean dagokion diru sarrera egin beharko da izen eta bi abizenak zehaztuz. Ordainketa zientzagarria Elkartearen aurkeztu beharko da. Horra hor Federazioaren kontu korranteak:

Laboral Kutxa: 3035 0039 31 0390022989

La Caixa: 2100 3693 24 2200207238

Rural Kutxa: 3008 0202 38 1741420226

Informazio gehiago: 948 224 683 · info@mendinavarra.com

www.mendinavarra.com · www.mendizmendi.com

- 27 -

2. hiruhilekoan izen emateko epea zabalik

Plazaola Kirolguneko ikastaroetako bigarren hiruhilekoan izen emateko epea zabalik dago. Urtarrilaren 8tik martxoaren 27ra bitarte iraungo du bigarren denboraldi honek.



X. Aritz Beteluko Herriarteko Krosa

Hilaren 11an egingen da Araizko Herriarteko Krosa. Aurtengoarekin 10 urte beteko ditu proba horrek. Beti bezala eguerdiko 12:00etan Beteluko plazan izanen da irteera. Korrikalariak Betelutik Arribera, handik Atallura eta buelta egin beharko dute. Guztira 7,7 kilometro. Iaz 207 korrikalari lortu zuten helmugaratzea, horietatik 32 eskualdekoak. Gogoratu bestalde, goizeko 10:30an Txikientzako Krosa izanen dela Beteluko Eskola parean.

Sariei dagokienez, sailkapen orokorreko lehen hiru korrikalariak, 120 euro, 80 euro eta 60 euro jasoko dituzte hurrenez hurren. Eskualdeko lehen hiru sailkatuentzat ere sariak izanen dira: 50 euro, 40 euro eta 30 euro hurrenez hurren. Gainera, lehen 300 korrikalariak oparia jasoko dute.

Aurretik izen emateko sartu www.kirolprobak.com atarian. (Txip horiarekin 10 euro eta txip horirik gabe 12 euro). Egunean bertan ere izen emateko aukera egongo da goizeko 10:45etik 10:30era, 15 eurotan.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
 661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lontamendi5@gmail.com Atallu - Aritz



> Plazaola Partzuergoa




20 URTE BIDEAN

PR-NA 88 3,55 ordu / 14,80 km

Goikozuloa

Era askotako lurretan barna ibiliko gara: hasieran, Uitzira iritsi arte, Plazaola trenbide zaharrean zehar, belar-soro artean, Lekunberri eta Aralarko ikuspegiak ditugula. Ondoren, Goikozuloko ibartxo lasaitik jarraituko dugu, bazkaleku, haritz, pago eta lizar artean. Ibilbidea okertu egiten da GR-9 mendiko ibilbidearekin (Probintzietako Errege Abelbidea) bat eginez, eta Etxarritik hasierako puntura iristen. Erlieba ibar guztikoa bezain berdea da, eta han-hemen kareharrizko ohiko azaleratzeak topatuko ditugu, paisaiari are kolore gehiago ematen diotenak. Ibilbide arin eta erraza da, goizeko txangoa egiteko aproposa. Mendiko bizikletan egin dezakete txirrindulari entrenatuek, 7. eta 8,2. kilometroen arteko zatian lokatza eta malda handia baitago eta bidea estua baita.



0,00 ordu / 0,000 km [1] Lekunberri (570 m). Geltoki zaharretik Plazaolaren bidea jarraituko dugu Donostia alderantz. Lehenbiziko tunelaren ondotik, autobia azpitik pasatu eta berehala ezkerretara hartuko dugu. Bartoloren tunela (argiztatua dago) eta beste bat, motzagoa, zeharkatuko ditugu Uitzizko geltoki zaharrera iritsi aurretik (Uitzizko errepidearen ondoan).
1,15 ordu / 4,900 km [2] Uitzizko geltokia. Errepidez bidearen zati bat egin ondoren, isurialdeen banalerroa zulatzen duen tunel handia aurkituko dugu. Tunelaren sarrera ezkerretara utziko dugu. Eskuinetara dagoen burdinazko ataka batek Goikozuloko ibartxora eramanen gaitu. Pistatik jarraituko dugu, inguru ospel xarmagarrietan barna.

1,40 ordu / 6,520 km [3-A] Bidegurutzea eta lizardia. Eskuinetara jarraituko dugu, GR-9 mendiko ibilbidearen markei (Probintzietako Errege Abelbidea) kasu eginez. Pagoen artetik lreber mendia ikusiko dugu.

2,00 ordu / 7,840 km Uitziz eta Etxarri arteko muga. Malda izanen dugu toki oso lau bateraino; bertan urak irensten dituen zulo edo sarbegi bat dago. Aurrerago ataka eta pisten gurtzadura aurkituko ditugu. (Ezkerretara, 800 metrotara, Uitzizko meatze zaharrak bisita ditzakegu). Ibilbideak pista utzi (kasu markei) eta, aurrera eginez, basoan sartuko da. Han behera egiten duen bidexka agertuko zaigu.

2,30 ordu / 9,550 km Etxarrira daraman pista. 200 metrotara,

Auxeneko bordak aurkituko ditugu. Pistatik jarraituko dugu.
3,15 ordu / 11,500 km [4] Etxarri (610 m). Herria goiko aldetik zeharkatuko dugu, eta Etxarriko bordetara jarraituko. Pisten bidegurutzea. Lehenbizi ezkerretara eta beherantz, eta hurrengo bidegurutzean eskuinetara jarraituko dugu, gorantz.
3,35 ordu / 13,100 km Etxarriko bordak. Zementuzko pistan aurrera egin, Aralar aurrean dugula.
3,40 ordu / 13,700 km Plazaolaren bidea, autobia tunelaren parean.
3,55 ordu / 14,800 km Lekunberri (570 m). Geltoki zaharra.



Bizikletaz egin daiteke honako ibilbidearen %90. Arg: J.A. Garaikoetxea



HAIZEAK ERAMANA

Italiatik iritsitako kontuak
> Lucia Ayestaran

“Lurrikara dela eta, L’Aquilan unibertsitateko ikasleak besterik ez daude jada”

Lucia Ayestaran lekunberriarra Italian dabil ikasten, Erasmus programarekin ikasturte baterako joan da matematika ikasketak bertan jarraitzera.

Noiztik zaude Italian eta zertan zabilta?

Irailaren 22an etorri nintzen unibertsitateko Erasmus programan sartuta, urte batez ikasketak hemen jarraitzeko asmoz.

Zehazki zein herri edo hiritan zaude?

L’Aquilan nago, Erromatik 120 kilometrorra gutxi gorabehera. Hiri txiki bat da, eta duela 5 urte egondako lurrikara baten ondorioz nahiko suntsiturik dago.

Zenbat denborarako joan zara?

Kurso baterako; azterketak ongi edo gaizki doazenaren arabera, hemen geratuko naiz ekaina edo uztaila arte.

Zergatik aukeratu zenuen herri edo hiri hori? Edo bertara joateko aukera nolatan sortu zitzaizun?

Logroñoeko Unibertsitateak matematiketako ikasleoi Italian L’Aquilara joateko aukera ematen ziguten

bakarrik, eta proposatzen zizkiguten herrialdeen artean Italia zen gehien gustatzen zitzaidana.

Zein da zure egunerokoa bertan?

Unibertsitatera joan, arratsaldean lagunekin egon eta gauean egunaren arabera festa pixka bat edo norbaiten etxean elkar-

tu... Azterketaren bat baldin badugu gogor ikastea ere tokatzen zaigu. Eta asteburuetan noizean behin turismo pixka bat egiteko aukera ere badugu.

Nolakoa da bertako gizartea?

Gurearen nahiko antzekoa, pixka bat lasaiagoa agian, eta gazteak nahiko adeitsuak. Lurrikara dela eta, L’Aquilan Unibertsitateko ikasleak besterik ez daude ia.

Zer da gehien harritu zaituena?

Garraio publikoaren funtzionamendua: autobusean edozein atetik sar zaitzke, eta tiketa pasa ala ez ere, zure esku dago. Hala ere, noizean behin kontroladoreak sartzen dira isunak jartzera.

Bertara joateko asmoa duen bati zer gomendatuko zenioke?

Bizpahiru italiar hitz ikastea (hemen ez du ia inork ingelesa ulertzen) eta armairuan dauzkan arropa lodienak ekartzea! A! eta Napoli bisitatzea.

Anekdotarik?

Behin unibertsitatean, klasea bukatu eta irakasleak klasetik ateratzeko denbora izan baino lehen, kaletik gauzak saltzen aritzen diren gizon horietako bat sartu zen galtzerdiak saltzera!

Etxekoei, lagunei edo hemen dagoen inori mezuren bat bidali nahi badiozu, aprobeztatu!

Lagunei, zuek ikusteko gogo ikaragarria daukadala (eta berehala ikusiko gara!), eta aurrez aurreko barreak faltan somatzen ditudala, skypeak bereak izan baditu ere. Etxekoei, egindako bisita primerakoa izan zela eta asko maite ditudala. Eta aiton-amonei, muxu handi bat eta oso ongi jaten dudala. Aittitta, eskerrik asko intxaurengatik!



NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

“Aurten 52 asteburutatik 46 okupazio izan ditut”

Astizko Juanito Perkaz Arraiagok bere jaiotetxea berri eta zati bat landa-etxe bihurtu zuen.

Noiz jarri zenuten martxan landa-etxea?

2007-2008an jarri genuen. Nik ez dut behin ere landa-etxeetara joateko ohiturarik izan, baina garai hartan Astizko etxea, konpondu nahian genbiltzan eta ideia ona iruditu zitzaidan. Etxearen erdia landa-etxea da eta beste erdia familiarentzat.

Irekitzeko erabakia hartu aurretik norbaiten laguntza izan zenuen?

Nire lehenengo erreferentzia Arruizko Pedro Manuel Barberia izan zen, berrari bere esperientziari buruz galdetu eta lagundu egin zidan. Eta bestetik lehenengo urtean Iribasko Etxeberriko Maria Jesus Arrastiok ikaragarri lagundu ninduen. Ia urte oso batez niri bezeroak bidaltzen ibili zen eta garai hartan oso lagungarria izan zen hasteko, asko eskertzen diot hori Maria Jesusi.

Zenbatentzako lekua duzue?

14 laguntzako lekua dago, baina logelak handiak dira eta nahi izanez gero beste ohatzeren bat ere sartzan dugu. Guztira sei gela ditu, hiru komun, sukalde handi bat bere egongelarekin eta beheko solairuan aisialdirako lekua dago, han txikienak gustura ibiltzen dira futbolinean edo pin-ponean jolasten...

Eta zer moduz doakizu?

Nahiko ongi, pozik gaude.

Nongo jendea etortzen zaizue?

Normalean nafarrak izaten dira gehienak, baina Gipuzkoatik eta Bizkaitik ere etortzen dira. Errioxako eta Burgoseko jendea ere izan dut. Udan berriz, katalanak eta valentziarrak.

Eta nola pasa ohi dute asteburua hemen?

Guri gehien bat ume txikiekin elkartzen diren taldeak etortzen zaizkigu. Askotan familiak edo tarteka elkartzea gustatzen zaien lagunak izaten dira eta

euren umeekin etortzeko leku aproposa dute etxe hau. Eguraldi ona badago, Mendukiloko kobazulora joaten dira edo hemen inguruan paseoren bat ematen dute. Normalean ez da jende gastazalea izaten. Udan etortzen direnak gehiago ateratzen dira, Donostia, Frantzia aldea edo Iruñea ezagutzera joaten dira, baina bestela hemendik ibiltzen dira. Gainera asteburua pasatzera datozenentzat ere asteburuak ez du askorako ematen, haurrekin etorri gero larunbatean jaiki kobazuloa ikustera joan eta arratsaldean etxeko lorategian edo hemen inguruan egotea gustatzen zaie.

Lan handia da zuretzat landa-etxe baten martxa eramatea?

Nik erraz eramaten dut, emakume bat izaten dut garbitasunak egiteko eta horrez gain lan pixka bat izaten da beti lorategia moldatzen, etxearen mantentimendua egiten eta publizitate kontuetan, baina hots egiten dutenean poz ederra hartzen dut!

Normalean urtetik urtera bezeroek erre-pikatzen al dute?

Bai. Nirekin neguko bezeroen %40 inguruk errepikatzen du. Gainera beheko aldean kalefakzio eta guzti jolasteko leku nahiko badutenez eguraldi txarra egiten badu ere etorri egiten dira.

Horrelako etxe handiak mantentzeko modu bat ere bada ezta?

Bai, laguntza bat da. Bestela etxe handi hauekin ze egiten



FITXA

Mikeletxenea landa-etxea

mikeletxenea@yahoo.es

699 328 480

- 14 laguntzako lekua.
- Etxea osorik alokatzen da.
- Beheko solairuan: sukaldea, egongela su baxuarekin, telebista eta DVD-arekin. Solairu berean bi logela bikoitz eta komun bat daude.
- Lehenengo solairuan: lau logela bikoitz eta bi komun.
- Sotoan: aisialdi gela.
- Kanpoan: lorategia altzariekin, aparkalekua, barbakoa, karrape estalia, haurrentzako parkea.

duzu gaur egun? Honetatik aberasterik ez dago, baina obra pagatzeko modua izanez gero eta etxea mantentzeko oso lagungarria da.



ilbeltza

2 | 18:30ean, Euskal Presoen giza eskubideen aldeko Auto Karabana irtengo da Arribeko plazatik, ondoren Betelu, Lekunberri, Larraun, Leitza eta Aresotik pasako da. Amaieran, Aresoko elkartearen merendua izanen da.

5 | Lekunberri: Erregeen kabalgata.

11 | Lekunberri: KANTINA ROCK: Last Fair Deal (Blues rock-a eta hegoaldeko rock amerikarraren artean murgiltzen den Getxoko taldea) musika taldearen emanaldia 20:00etan Kantinan. Sarrera 5 eurotan.

11 | Betelu: Araizko X. Herriarteko Krosa. 10:30eta Umeen Krosa eta 12:00etan proba nagusia.

18 | Lekunberri: KANTINA ROCK: Lurra musika taldearen emanaldia 20:00etan Kantinan. Sarrera 5 eurotan. Iñigo Muguruzak (Kortatu, Negu Gorriak, Joxe Ripiau, Sagarroi) eta Ane Garciak sortutako taldearen bigarren lana aurkeztera datoz, "Akatsa sisteman".

23 | Lekunberri: Energia kooperatibari buruzko hitzaldia Goiener eta Som energia kooperatibetako kideen eskutik. 19:00etan, Larraungo Udaletxean.

otsaila

4 | Santa Ageda Bezpera

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- Atallun 6 urteko VPO **pisua salgai**. 90 m2 + garajea + trastelekua. 130.000€ Miren (646 179 746).

- **Baba gorriak** salgai Bete-lun. T: 606 375 855.

-Areson, SASTIZAR **baserri - landetxea** salgai 25.000 m2 lur eremuakin. info@sastizar.com

ALOKAIRUA

- Uitzin **pisu rustikoa** jardinarekin alokagai, altzariz hornitua. 420 € hilean. 696 269 511. Nerea

LAN BILA

- Lekunberrin emakume bat prest **edozein lanetan aritzeko**: etxeko lanak, pertsonak zaindu, etxebizitzaren garbiketarak eta abar. Emilia Dimitrova, 948 604 893 / 679 053 368 .

-**Jantzien moldaketak** edo arropen edozein motako konponketak egiten dira. Gurutze 647 791 723.

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era. Publizitate eskariak bi hilabetez egongo dira jarrita, ondoren kontrako abisurik jasotzen ez badugu kendu egingo ditugu.

Telefono zenbakiak

Larrialdiak.....112

Beteluko osasun etxea.....948513300

Araizko osasun etxea.....948513040

Lekunberriko osasun etxea.....948504208

AGENDA: Mailopeko agendan ekitaldiren bat edo deialdiren bat agertzea nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

AMAIRU BAR
GETXOKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

Kantina Rock
948
60
48
21
KANTINA
bokatak, platerak eta...musika

INFORMATIKA BETELU
ordenagailuen salmenta eta konpontzea
sareen instalazioa eta konfigurazioa
634 551 743
informatika.betelu@gmail.com

Lagundu Mailope!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu? mailope@labrit.net



æk
19.korrika



EUSK AHAL DUN!



**ZU ERE
LAGUNTZAILE**



**LORTU TXARTELA
AEKren EUSKALTEGIETAN
ETA KORRIKA DENDETAN**

**12 euroren truke, garrantzitsuena lortuko duzu:
AEKren euskaltegiei laguntzea**

Horrez gain, pina eta txartelaren
abantailak eskuratuko dituzu.



www.aek.eus · www.korrika.eus

